

HITZAURREA

Hemen dago, azkenean bukatua!, aspaldidanik aho-belarrietan zebilen hiztegia. Eskuetan duzuna, pentsa dezakezue, ez da goizetik gaurera egindako lan bat, zerbait luzeago eta aspergarriago baizik. Horregatik, agian, interesgarri gerta dakizuke beronen historia, laburki bederen, jakitea

1. Hiztegi honen historiaz zerbait

Orain dela bi urte t' erdi, euskara batzuko hiztegi baten premia larria ikusirik, Bizkaiko Alfabetatze Batzordeak Xabier Kintanarekin hitz egin zuen, beronek lan honi lehenbailehen hasiera eman zieziaion. Hiztegia, orduan pentsatzen genuenez, oinharriko obratxo bat besterik ez zatekeen izanen, **Batasunaren Kutzia** baino pixkat handiagoa edo.

Xabier lanean hasi ondoren, ordea, laster konturatu ginen, ikastola, irakasle, itzultzaile eta idazleen beharrian gero eta haundiagoak kontutuan harturik, nahiz eta nahiezkoa zela hiztegi mardulago eta osoago bat eratzea. Berau burutzeko, baina, lagun bakarra ez zen nahikoa eta harekin Joseba Tobar hasi zen lanean, harez gero lankidetzat estimagarria eskainiz.

Lana, Bizkaiko Alfabetatze Batzordeak Euskal Akademian duen gelan egiten zen hasiera batetan, baina toki hura, egia esan, ez zen oso aproposa gisa honetako lan baterako. Izan ere, hara egunero lagun asko etortzen zen argitasun bila, eta honek, noski, denbora galtze bat zerkargigun. Azkenean, lasaiago egoteko, CINSAK Bilbo Zaharrean duen bulego bat utzi zigun eta haraxe aldatu ginen. Hor zenbait hilabete eman ondoren, Bilbón, Euskal Herri osoan bezalaxe, eskuin puntako terrorista trebe bezain harrapagaitz horik beren atentatuak egiten hasi ziren euskal kutsuko erakunde eta denden kontra. Arestiri **o preu dolori** esan erazi zion egoera hark kezkatu egin gintuen, beldur izatekoa baitzen, non geunden eta zer nolako lanean aritzen ginen jakinez gero, gauren batez gure bulegora etorri eta hainbat denboratako fruitua, harez gero fitxatan ezarria, erabat birrintzea. Ardurara hau zenbait laguni adierazi eta, guztiek aho batez zera kontseilatu ziguten, zuhurrena bule-

go hartatik zenbait hilabetez alde egitea zatekeela.

Lagun batek, Joan Mari Covián-ek, bere automobila eskaini eta harekin gure materiale osoak aita frantziskotarrek lrala kalean duten komentura eraman genituen. Fraideen aldetik erraztasun eta laguntza besterik ez genuen hartu, hemendik bihotzez eskertu nahi geniokeena berau. Bertan hirur bat hilabete egin genuen —Aresti hil zitzaigun tartean —egoera latz eta lotsagarri hura, nolabait, atertu arte.

Bilbo Zaharreko bulegora berriro itzuli ginean Sabin Egileor eta Koldo Zuazo gehitu zitzaizkigun, hiztegiari langile berriok bultzada handia eginez. Han geunden Bilboko zenbait euskaltzale ezagunen dendak berriro metrailatuak izaten hasi zirenean, horrekin guregan lehengo beldurra sortuz. Oraingoan, ordea, frantziskotarraren komentua bera ere -hartuak zituzten mehatxuak zirela eta- ez zatekeen gehiago aterpe egokia, eta klaretiarren ikastetxe batera jo genuen, Bilboko kale famatuaren ondoan zegoenera, hain zuzen. Han erabateko laguntza agertu ziguten, bai eta areto zabal bat gure zerbitzurako ezarri ere. Ez da erraz adierazten, guk uste, holako egun nigargarrietan gisa horretako meseak zenbatetaraino eskertzen diren. Franko, toki hartan geundela, bizimodu hobera pasatu zen, hura hil ondoren.

Gabonak hantxe eman genituen, baina urte berriaren esperantza hobeez, berriz ere Bilbo Zaharrera bihurtu ginen, CINSAK utziriko tokira. Eta hementxe iraun dugu, batzutan aldatzeko zalantza bada ere, hiztegiari azken ukituok egin arte

2. Hiztegiaren eratzeaz

Edozein lanek —aitzindariarik duenean bederen— bere oinharriak aurrekoetan eduki behar baditu, areago oraindik hiztegi batek. Gu ere, lan honetarako, lehenagokoez baliatu izan gara, Azkuerenaz bereziki.

Gauza jakina da, ordea, bere garaiko giroagatik, Azkuek batzutan eritzi hertsiegi bat erabiltzen zuela zenbait hitzen kasuan. Horregatik guk askotan iturrietara jo behar ukan du-

gu: idazle zaharren eta herriaren usariora.

Azkuerenaz gainera, erizpide kritikiko batez, beste hiztegi asko ere aztertu ditugu, hala nola P. Lhandarena, P. Muxikarena, Gorostiagak 1596.eko **Refranes y Sentencias** liburutik ateratako hiztegia, Arantzazuko hiztegitxoa, **Batasunaren Kutxa**, Arestiren **Hiztegi tipia**, eta F.L.V. en autore berberak J. Leizarragaren obretatik bildurikoa, Felipe Lizaso komandante ohiak **Batasunaren Kutxa**ri egindako kritika baliosa, Villasanteren **Azularen hiztegia**, Zamorako gartzelaren zaudenean zenbait apezek egindako hiztegitxoak (Axular eta J. Etxeberri Sarakoaren lanez), Deustuko Euskal Kultur Mintegiako talde batetaren R. Basurtok egindako Etxapareren hiztegia (oraindik ezagertua), azken urteotan **Anaitasunaren** azkenaurreko horrialdeetan l. Berriatuak bilduriko hitzak, Zortzi urte arteko ikastol hiztegiak, J. Iturbek Physikaz eta Khimikaz egindako lanak, "Jakin" taldeak utziriko Natur Zientzien hiztegiaren aurreprojektua, **Euskera** urtekarietan zehar zenbait lagunek (Aspirozek, Goikoetxeak...) bilduriko hitzak, Txillardegiren matematik hiztegia, Saioka 1, 2 eta 3an agertutako hiztegitxoak eta liburu tekniko askotan azaltzen diren zerrendak. Guztiotatik materiale ugariak bildu genituen.

Materiale horietatik, geroago argituko dugun erizpidez, euskal hitz mordo haundi bat aukeratu genuen, horrekin euskararen oinharritzko inventarium bat biribilduz. Hitz horik —espainolezko itzulpenaz— fitxatzen ezarri eta ordenatu ondoren, fitxei banan banan buelta ematen hasi ginen, euskara-espainieratik espainiera-euskarara iragateko. Horretara, lehen **etxe:casa** zekarren fitxatik beste bat **casa:etxe** atera genuen. Lan hau bukatu eta gero, ba zegoen, egon, oinharritzko hiztegi bikoitz bat, baina ez zen, hala ere, osoa.

Espainierak, gizarte maila eta kultur arlo guztietan luzaro erabilia izan den aldetik, maiz synonymo ugari ditu, euskarak hitz bakarra duen bitartean. Honek zera dakar, guk hiztegian **sar(tu)**: **meter**, **enrrar**, **-ado** pintzean ez dugula ikusten **sar(tu)** hitzak, halaber, zenbait kasutan erdaraz **introducir**, **ingresar**, **cabar**, **insinuar**... ere esan nahi dezakeela, ondorioz, erdal partean hitz horien hutsunea gertatuz.

Ba daude, bestetik, hainbeste hitz tekniko, usarioan normal xamarak izan arren, euskarazko hiztegi arruntetan ia inoiz agertzen ez direnak: **klinika**, **interes**, **eskupeta**, **aprobetxategi**, **philosophia**...

Hutsune guztiok betetzeko eta, hitz batez, hiztegia osatzeko, espainol hiztegi on bat hartu genuen, gurean azaltzen ziren hitzak harenekin kontrastatzeko. Horrela, falta zirenak, gehitu egin genituen, bidenabar, beste fitxa baten bitartez euskarazko partera kidea sartuz.

Zalantzak eta eztabaidak ez dira guti izan. Beste hizkuntzen hiztegiak ere maiz erabili eta kontutan hartu behar ukan ditugu: frantses, ingeles, aleman, italiara, kataluniera, bretoiera, e-

rrusiera, arabiera, georgiera, latin eta grekoak. Beste nonbaitekoak nola baliatu izan diren jakiteak, halafedea, mesede eta argibide ederra egin digu, geure geureak jotzen ditugun istilu eta arazo asko beste hizkuntza eta herrietan ere gertatu izan baitira, eta —dudarik ez— haien espe-
rentzia ezin baliosagoa da guretzat ere.

3. Euskera batua eta euskalkiak

Oraindik ofiziala ez den hizkuntza honetan zein hitz den berez batua eta zein dialektala bereiztea ez da beti erraz izaten. Arazo honetaz, eta gaurko idazle gehienek artean dagoen **consensus** tazituz horri jarraikiz, guk bide hau hautatu dugu:

Hitz batek, batutzat hartua izateko, ondoko baldintzak bete behar ditu:

1) Euskalkiz, zabaleraz eta literatur tradizioaz oso hedatua izatea(1); honen arauera, **berri**, **gerri**, **txerri**, **irin**, **gezur**, **mahai**, **artzain**, **ipuin**, **laster**, **burruka**, **arrazoi** hitzak batutzat jo ditugu, baina **barri**, **garri**, **txarri**, **urun**, **guzur**, **mahain**, **artzai**, **ipui**, **laister**, **borroka**, **arrazoin**, aldiz, ez.

2) Hitz bi hedadura berekoak baldin badira, guretzat fonetik aldetik euskal lege normalak ongien betetzen dituen da batutzat jo beharrekoa. Esaterako: **bake**, **bekatu**, **goilare**, **eritzi**, **gatibu**, **gutizia**, **dorre**, **dorpe**, **unibertsitate**, **Estatu**, **estatistika**, **bago**, **biku**, **gitarra**, **gerezi** erredutzat dauzkagu, **pake**, **pekatu**, **koilare**, **iritzi**, **katibu**, **kutizia**, **torre**, **torpe**, **unibersidade**, **estadu**, **estadistika**, **pago**, **piku**, **kitarra** eta kereiza dialektaltzat hartu ditugun artean.

Kasu biotan euskalkietako hitz horik, orain arteko liburu askotan agertzen direnez gero, euskal partean bere horretan utzi ditugu, maiz zein euskalkitakoak diren seinalatuz, baina haien ondoan ez dugu erdal itzulpenik jarri, **vide** baten bitartez euskara batuan nola diren azalduz. Honela **Barri**: (B) vide **berri**; **Pake**: (G) vide **bake**, berauen tokian esangura (**nuevo**, **paz**) ezarriz. Irakurleak, beraz, ba dakike horrela hitz hori holako tokietan modu horretara esana izan arren, egokiagotzat jotzen duguna bestea dela. Erdal partean, ordea, hitz bakarra jarri dugu; **nuevo**: **berri**; **paz**: **bake**, horrela gure hizkuntza normaleztapen bidean abiarazteko.

3) Beste euskalkietan kiderik ez duten hitz hedatu xamar guztiak, besterik gabe, euskara batuzkotzat hartu ukan ditugu, hola hizkuntza komunetaren **hondoa** toki guztietako euskalkiez osatua dadin: **neba**, **lekuko**, **kalapita**, **txibierro**, **arrazkatz**, **berme**, **bahi(tu)**, **puska(tu)**, **izokin**, inoiz forma gastatu xamarra zenean, literatur itxura emanenez. Honela, Nafarroako Sakana: **consuegro** esateko erabiltzen den **gueskide**-tik guk **guras-kide** ipini dugu, beraz egokiagoa delakoa.

4) Sustrai bereko hitz ezberdin askok bide eder bat eskaintzen diote euskarari beste hizkuntzetan hitz arruntetan eta kultismoen artean egiten diren esangura-, zentzu- eta ñabardura-banaketak egiteko: esp. **delgado/delicado**, **jamelgo**

famélico, raudo/rápido, derecho/directo, estrecho/estricto; fr. **grammaire/grimoire, réchappé/rescapé;** err. **golová** "burua"/**glavá** "kapitulua". Gure literaturan zenbait idazle Azkuegandik hona euskalkien ugaritasun horri beren fruitua ateraten hasiak dira: **itzal** "gerizpe"/**itzel** "ikargarri", **uki(tu)** "eskuaz"/**hunki(tu)** "sentimenduz", **hestu** "estrecho"/**hertsu** "estricto", **ontzi** "lehorrekoa"/ **untzi** "uretarik ibiltzekoa" (Zamarripa izan zen, oker ez bagaude, iparraldeko euskalkien berezitasun honetatik lehenik konaturatu zena). Guk, hizkuntzak ematen duen neurrian, ahalik eta probetxu gehien ateratzen saiatu izan gara, zenbait kasutan honek dakarkeen artifizial kutsua gora behera (2). Zenbait hitz — eta hau urte askotako normaleztapena ez duen hizkuntza batetan bidezkoa da — proposamendu gisa ezarri dira, orain arteko hitzgegi gehientzuetan gertatzen den bezalaxe. Idazleek, irakurleek eta herriak, azken batez, erabakiko dute proposamendu horik onhartu edo gaitzestea.

5) Sustrai ezberdineko baina esangura bereko hitzei dagokienez, guk, lehengo eta behin, guztiak synonymotzat jo ditugu, baina usarioaren arauera lehenetasun-ordena baten barruan: **erori, jausi; lotsatu, ahalketu; etorri, jin; ipini, jarri, ezarri; haiztulo, harpe, koba; baratz, ortu, guztiok erabat jatorizat eman ditugu, baina erdal partean, gure ustez zabalduen, ezagunen eta egokiena denari lehen tokia eskainiz: caerse(= eror(i), jaus(i); avergonzar(se): lotsa(tu), ahalket(tu)...**

Inoiz, sustrai ezberdineko hitz horik erdarazko kultismo eta hitz guti erabilien itzulpena emateko usatu ditugu: **perro: txakur; can: or; palabrak hitz; vocablo: berba; poner: ipin(n)á, jarri(i); colocar: ezarri(i)...**

Beste batzutan, ordea, hitz ugaritasuna (tximeletaren 200 izen xeletbreak, hilabeteen izenak...) nahasgarri eta zehaztasunaren kontrako gertatzen da. Hau animala, landare, teknika eta zientzi izenetan izaten da nabarmenago. Hone-lakoetan, euskal partean synonymo hedatuena jarri arren, erdal partean haik ahalik eta gehien urritu ditugu, hitz bakarra uzten saiatuz.

6) Hitzen bukaeraz den bezainbatean, guk 1. baldintzan aipatua eduki dugu kontutan, hau da, hedaturaz zabalduenik dauden formei eman diegu geure hobespena. Tradiziorik egon ez den kasuan (zientzi hitzetan, esaterako), kultur hizkuntza zabalduenak eta, nolabait, estetika eduki ditugu erduztat. Salbuespenak, dena den, agertuko dira.

Hona hemen onharturiko erregelak:

-ain (eta ez **ai**): **artzain, usain, arrain, zain, unain, ...** baina **mahai**.

-uin (eta ez **-ui**): **ipuin**

-au (eta ez **-aum**): **gatzelau, eskribau, kristau, bilau, ...** baina **arraun**.

-oi (eta ez **-oin**): **arrazoi, lehoi, limoi, eskalpoi, ...** baina **ohoin, oin**.

-mendu, -mentu: lehena hitzikitzat jo dugu eta, erabiltzeko, aurreko hitzak sustra eman- kor bat behar du izan: **kontsolamendu, bali- amendu, adimendu ...**; **mentu**, aldiz, erdaratiko hitz osoen bukaeratzat jo dugu, atzikitzat kitzat kontsideratu gabe: **testamentu, par- lamentu ...** Oro har, erdarazko **-mento** eus- karazko **-mentu** ri dagokio; **-miento**, aldiz, **-mendu-ri** dagokion artean.

-eiu (eta ez **-eio**): **maneiu, planteiu, letreiu, potikeiu, zazeiu, baina solfeio, mausoleio. -ari** (eta ez **-ario**): **botikari, bibliothekati, proletari, sikari, unibertsitari, esponjari... -is** (eta ez **-i**): **krisis, elektralyis, hepatitis, otitis, analysis ...**

-e, -ea (eta ez **-es, -eas**): **belemnite, nummu- lite, trilobite, pankrea ...**

-us (eta ez **-u**): **birus**

-os (eta ez **-oso**): **handios, kuraios, erlijios, misterios ...**

-oi/-u bukaeratako, erregela hauk eduki ditugu kontutan:

a) hitza latinetik datorrenean (**abendu** < **ad- ventu**, **artikulu** < **articulu**, **testu** < **textu** ...) **-u** amaiera hobetsi dugu, euskal hitz zahar gehie- nen arauera (**liburu, biku, ortu, portu, gertu, bekatu**...); salbuespenak **-ibo** eta **-io** bukaerak izan dira, estetika eta deklinatze arazoiez ho- laxe utzi ditugunak (**adjektibo, masibo, sustan- tibo, plutonio, uranio, magnesio** ...). Holaxe egiten zuten idazle zaharrek.

b) Grekotik datozen hitzak, ordea, **-o** bukaer- az ezarri ditugu, lehengo eta oraingo usario ko- munenaren arauera: **politiko, atomo, biologo, fenomeno, izamo, ...** Aparteko kasua egin dugu **-atu, -ato** amaierekin. Kimik konposatuetera- ko **-ato** hautatu dugu: **bikarbonato, sulfato, nitrato**...-**atu**, berriz, **syndikatu, ekonomatu** moduko hitzeterako utzirik.

-a/-e alternantziak (**anaia/anaie, andra/an- dre**...), hitz zabalduenaren alde agertu gara (**a- naia, andre**...), baina hitz berriak direnean deklinazioan mugatasuna argiroenik azal dezaketek- nak hobesteko joera ukan dugu; **filme** eta ez **filma**.

4. Euskal hitzak zeintzu diren

Euskara zerbait apartekotzat jo ukan dute batzuk orain arte. Komunikabiderako tresnatzat barik, eskabide batzu egiteko harmatzat erabili izan da gehiegitan, hots, hizkuntza ez, baina simbolo huts bat bezala. Euskara maitatu arren, gure hizkuntza mintzatzen ez dakiten edo kultura gutti duten pertsonen artean ezin erazagoa da demagogia egitea, eta jakin, ba dakigu beti- tiko benetakoez ez dutela okasioz galduko hiz- tegi honetat berenak eta bost esateko. Bistakoa denez, bi urte t'erdian euskal hitzgegi honetan ahalegindu garenok, lan hau burutzeko, euskara- ri eta Euskal Herriari kalte egiteko gogoak ez bestek bultzatu gaitzuket.

Oinarriz, hori sinesteko prest daudekeenent- zat guk ez daukagu, derragun argiro, bereaik

beren uste horretatik atera ditzakeen arrazoirik bat ere. Gure lana ulertu eta estimatzen dutenek, bestalde, ez digukete horretaz argitasunik eskatuko. Ba dirudi, beraz, ez genukeela inolako azalpenik eman behar hitzegi honetako berbengatik. Hala ere, ba dago hau egiteko arrazoirik.

Alde batetik, gure bidea onhartzzen dutenei hautapen honetarako zergatiak birgogoratzea ez datorkieke gaizki, beren jarrera argudio zuhurriz arrazona ahal dezaten. Bestetik, geure kontrarioak jadanik konbentzitzeko esperantzarik ez badugu ere, gutienez, gure arazoiek testigantza emateko balioko dute, etsaiek bidean jartzen saiatu diren oztopo eta sasi guztiak gora behera, aurrera segitzen dugula erakusteko.

Hitz bat euskaltzat jotzeko, Euskal Akademiak 1959. urtean emandako erabakia eduki dugu buruan. Hona hemen, hitzez hitz, agiria:

"Euskaltzaindiak, idazle eta hizlariet zuzenbide batzu eskaini nahiz, eta asko zuzenbide horien zain dagoela jakinik, honako Agiri hau azaltzen du:

Oinharri legoa

Hitzegi sailean ez da bidezko hitz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan ere hitzen erabidean hizkuntzaren joerak gordeaz.

Hori hitzegiari gagozkiola. Gramatikaren barrutian, ordea, ez da sekula zilegi asmatzen ibiltzea edo hizkuntza aldatu nahi izatea.

Euskal hitzak zein ziren jakiteko bidea

Eta hitzegiaren hauzi hau xehetasun gehiagorekin garbitu nahiz, euskal hitzak zein diren, hau da, euskal literaturan erabiltzeko hitz jatorrak eta bidezkoak zein diren jakiteko, bidea eta neurria finkatu nahi du AURRENIK Euskaltzaindiak.

Euskal hitzak dira euskara bizian sustraiturik daudenak.

Sustrai hori zenbat eta sakonagoa izan, hainbat eta eskubide gehiago du hitz batek erabiliaz izateko. Hitz baten zabaluneak, aintzinasunak eta idazle zaharrek hitz hori erabili ote duten jakiteak, asko esan nahi du hitzaren sustraiaren zabalera den jakiteko.

Sustrai handiko hitzak, bada, euskal hitzak dira, nahiz eta erdaratik etorri. Ba da gure hiztegiaren holako hitzen piloa: jatorriz kanpotik sarturak, baina euskararen gogotik erroturik daudenak, halegia. Beraz, etxeko bihurtuak dauzkagu, gure gureak dira hitz horik. Euskal hitzak dira, bada, erdaratikoak izan arren. Hitz horiek eskubide osoz erabili daitezke, eta horien lekuan erabiltzeko asmatu diren hitz berriak ez dira gehienetan euskal hitzak eta ez dute haiek hainbat eskubide erabiliaz izateko.

Hona hemen holako euskal hitz jatorren zerrenda bat. Erdaratikoak izan arren, etxeko bihurtuak dauzkagu, eta emändako neurriaren araueru euskal hitz jatorrak dira:

Abendu, aingeru, alkate, amodio, arima (anima), abade, apez (apaiz), apostolu, arraza, arrazoi, bake (pake), balio, bakatu (pekatu),

berba, bertso, bedeinkatu (benedikatu), birjina, birtute, borondata, dohain (doe), damu, deabru, denbora (denpora), dantza (jantza), diru, desegin, errega, erregina, erlijio (erleji-no), eliza (eleiza, elexa), eskola, izpiritu (espiritu), familia (pamili), fede, fruitu (fruta), finkatu, gorpuz, gramatika, gloria (loria), grazia (garazia), imajina, infernu (infenu, inpernu), imitazio (imitazio, imitazionale), jende (jente), joku, kantatu, kolore, kafe, karitate, komunio (komunio, komunions), kanpo, kontra, kanta, liburu, lore (lora), lege, mundu, meza, modu, molda, moldatu, obeditu, olgeta, partitu, paradisu (parabisu), barkatu (parkatu), pentatsu, pentasandu (pentsamentu), sakramentu (sakramendu), saindu (santu), seinale, testamentu, unil, zapata, zentzu (zontzuz), zeru.

Euskaltzaindiak, bada, hitz hauk eta antzekoak diren beste asko eskubide osoz erabil ditezkeela erabakitzen du, euskaldunak, jatorrak eta garbiak direlako. Eta idazle eta hizlariet erabil ditzatela eskatzen die, hitz asmatuetara jo gabe.

Berebat, hizkuntza berezien gainetik zabaldu dirik dauden kultur eta zibilizaziozko hitzak ontzat hartzea eta erabiltzea Euskaltzaindiak begi onez ikusten du. Adibidez: **politika, teknika, literatura, liturgia, metro, kilometro, eta abar.**

1959.eko Apirilaren 2an''

Goikoaren araueru, beraz, guk literaturan eta usario zaharrea oinharrituriko hitz guztiak ontzat eman ditugu.

Hitzen formari dagokionez, jende xehearen usarioa zenbait kasutan errespetatu egin dugu, herri etymologia zegoenean batez ere (**eskupe-ta...**) baina ez dugu onhartu prestigio eta esthetika kontuagatik **zozializta, pameli, paltso, lumeru, karkulu, trabena, liferentzia, izelobre, prantses** eta gisa honetarikorik.

Puristek erdaratiko hitzei dieten ezin ikusiak, hala ere, ba ditu nolabaiteko arrazoiak. Alde batetik zera dago, zenbait idazle zabarrek eta idazletzakok, euskara guti jakinik, gure hizkuntzaren hitz jator eta ezagunen lekuan sustraitu gabeko erdarakadak parra-parra erabiltzea. Hau, zer esanik ez, erabat gaitzestekoa dugu, horren bidez euskarak erdarapean jasaten duen zapalkuntza arindu ez baina gogortu egiten baita. Joera honen kontra sorturiko garbizaleak, beraz, ulergarriak dira, eta txalogarriak ere bai. Neurriak, ordea, hemen ere, gauza guztietan bezalaxe, gorde beharra dago.

Euskara ez dakiten erdaldunak —espainolak bereziki— askotan erdal jatorrizko hitz nabarienez baliatu izan dira euskara "dialekto mordoilo" bat zela mesprezios aldarrikatzeko, eta horrek, Larramendiren garaitik hona, defentsa-jarrera bat sortera zi du alde honetako euskaldunongan, gure hizkuntzaz ezertarako arduratu ez diren erdaldun horien eritziak euskararen salbaziorako baliorik balu bezala. Honen kariaz, euskaldun eta basko batzuk euskara, besteen antzeko hizkuntza bat

gehiagotzat barik, "erdara ez bezalako zerbait"tzat hartu dute eta erdal itxurako hitz guztiak baztertera abiatu dira, egiten dutena, hain zuzen, erdarakadatik haundiena dela konturatzeko. Izan ere, jarrera hori praktikara eramateko, euskara ez eze, baizik eta **erdara** ere ongi jakin behar da, eta euskara hutsa lekikoen euskaldun batek, besterekin gonbaratzeko modurik ezaz, ezingo luke hori egin. Hor dago, gogoak lagun, Peru Abarkaren esaldi xelebrea "**Nik eztaikit erdaldunen barririk, baina bai zapatearen izena Euskalerrietakoa dela**". Gisa honetako puristentzat, azken batez, erdara da gure hitzen euskaltasun edo erdaltasuna ematen duena, beste ezin hizkuntzatan onhartuko ez litzatekeen mustur sartzea berau.

Euskal hitz "garbiak" erabakitzeo, erdara jakin behar honek, gainera, ba ditu bere mugak, eta hauxe da purista askok ez dakusatena. Beren erizpide horrekin aurrera joanez gero, beste hitz asko ere, etorkia ez dakietelako, jatoriaz jotzen dituztenak, erdal iturrikoak direla jakin bezain agudo baztertu beharko litzukete, eta hola, etimologi estudioak zenbat eta aurrerago, euskal hitz garbiak hainbat gutiago genituzke, atzorrarte euskaltzat geneukana gaurdanik erdaltzat jo beharrez.

Hona hemen, esenplu gisa, hitz mordo bat, eskuharki punstarik porrokatuenak berek ere "garbi"tzat onetsiak.

gorroto < gaz. zaharra **corroto** < lat. **corruptus**; **habia** < lat. **cavea**; **inguru** < lat. **in gymum**; **goru** < lat. **colum**; **moeta** < lat. **moneta**; **okela** < lat. **buccella**; **laru** < lat. **claru**; **lau** < lat. **planu**; **hobia** < lat. **fovea**; **gauza** < lat. **causa**; **zilark** kelt. **silabr** (cfr. ing. **silver**, alem. **silber**); **aditu** < lat. **auditu**; **deitu** < lat. **dictu**; **polit** < gazt. zahar. **polido**; **gura** < lat. **gula**; **boli** < **eboreus** (cfr. fr. **ivoire**, kat. **vori**); **lasaitu** < lat. **laxare**...

Puristak, gainera, herri osoak erabiltzen duen hitz batetik ihes egiteagatik, maiz, konturatzeko, antzeko bekatu larritan erortzen dira, beraiek erdarakada horren ordez darabiltena ez baita, askotan, "garbiagoa"; **prest** hitzaren lekuan **gertu** dioenak ez bide daki, kasu, berau latinezko **certum**-etik datorrenik; **saindu**-ren tokian **done** mai-teago duenak azken hau **domine**-ren kume bat dela ez dakien bezalaxe. Irrigarriagoa da, bestalde, **tren** moduko hitz internazional eta ezagun baten ordez **bultz** asmatzea, berau **bultzatu**-tik aterata, partizipio hau latinezko (**impulsatu**-ren ondorioa dela ohartu gabe (3). Luze joko liguke, noski, gaur euskarak inguruko erdaretatik hartuak dituen hitz guztien etimologia ezagunak banan banan azaltzeak. Batzu agertu ditugu ulertzaile onarentzat aski direlakoan.

Orain arteko liburu, artikulua eta obra batzutan, ordea, gerraurrekoetan bereziki, hitz asmatu aldrebes asko azaltzen dira, oraingo irakurleentzat erabat ulertezinak gerta daitezkeenak. Horregatik, holakoak ere hiztegian sartu ditugu, gaur-

ko literatur euskararen nola diren argituz; esaterako, **Idazti**: neologismo incorrecto, vide **liburu**.

Usarioa, erabilera, da, beraz, guk jator erizteko hautatu dugun bidea. Jokabide hau, gure Akademiarena ez eze, baizik eta monoglotta diren herri guztietan normalena da gainera. Zein espainolek dauka kanpotartzat, kasu, **yelmo**, **jamón**, **almohada**, **café**, **carro**, **jardín**, **fusil**, **cano**, **caolín**, **nenúfar**, **almirante**, **tomate**, **alcald**, **chocolate** eta beste asko eta asko, hitz guztiok, zein bere sasoin, germanieratik, frantsesetik, arabieratik, keltatik, italieratik, txineratik edo amerindiar hizkuntzetatik mailegatuak izan arren? Zergatik lotsatu behar gara euskaldunok beste guztiak egiten dutena egiteagatik?

5. Hitz berrien arazo

Euskarak, beste edozein hizkuntza bizik bezalaxe, gaurko zibilizazio eta kultur giroan irauteko, kontzeptu berriak adierazten dituzten hitz berriak behar ditu, bere hizkuntz sormen eta aberastasuna gehi dakizkion.

Hitz berrien arazo honetaz guk geuk erizpide zabal bat hartu dugu. Nolabait, erizpide hau lehengo eta oraingo euskal idazle gehienek bidetik doa, hots, gure literatur praxisa oinharri harturik. Bestetik, latinetik ez datozen eta euskararen egoeran, nolabait bederen, dauden beste hizkuntza batzuren jokabidea (inoelesa alemana, errusiera, arabiera, georgiera...), ikusi ahal ukan dugunez, antzeko hidotik hitzen dela dirudi, praxis hau, jakina, tokian tokiko hizkuntzaren i-zaera bereziari egokituz.

Hona hemen guk erabiliako hastapenak:

1) Gaurko euskararen erabiltzen diren **gauza** edo **kontzeptu zaharretarako**, hitz berriak asmatu aurretik, nahiago ukan dugu euskara zaharrean hori esateko hitzik ba ote zegoen aztertea: **escudero**, **versículo**, **abogado**, **imperio**, **señorio** esateko, kasu, aintzinako **ezkutari**, **bertset**, **abokatu**, **enperadorego** eta **jaurgoa** aukeratu ditugu, hitz hauek, neurri batetan zaharkiturik egon arren, literatur tradizio eta historikotasun bat gordetzen dutelako.

2) Arkhaismoak eta hitz zaharkitu batzu, zenbait kasutan, gaurko zenbait kontzeptutarako ere erabil daitezke, zentzua pixka bat aldatuz (cfr. esp. **azafata** "erreginareen gelaria" lehen, "hegazkinetako laguntzailea" gaur); holaxe egin dugu **alokat**, **burjes**, **mandatari**, **merkatari**, **untzi** (**espezialuntzi**) eta beste hitz askorekin, bai eta zentzu abstrakturen erabilitakoekin ere (**bide**, **iturri**, **alderdi**, **sustral**...)

3) Geure hizkuntzaren orain arteko **inventarium** zaharrean gauza berrietarako hitz egokirik aurkitu ez dugunean, noski, hitz berriak hartzeraz jo behar ukan dugu ezinbestean. Honetarako, baina, bi bide erabili ditugu:

a) Kultur hizkuntza komunenetan batasunik ez dagoen hitzetan, berauk euskarazko sustrietatik eratzea hobetsi dugu. Hau egiteko, ordea, euskararen elkartzeko eta eratortzeko lege ja-

torrak ahalik eta ongien betetzen saiatu gara, horrela sorturiko hitzak —euskaraz irauenen duten ala ez besterik da— gutienez “euskal” itxura zuzena eduki dezajen. Oso mesedegarriak izan zaizkigu arlo honetan Azkuek, Altubek, Xabier Amurizak eta Luis Villasantek egindako lanak.

Asmatu beharra egon denean asmatzeari ekin gatzazkio, bai, baina aurrekoen bidea ongi begiratu. Orain arteko hiztegieta hitz asmatu ugari agertu izan dira, eta guk, besterik sortu baino lehen haik eduki nahi ukan ditugu kontutuan, haietaz ahalik eta gehien baliatuz. Onhartu ez ditugunak zerak izan dira, formaz (hizkuntz erregelak betetzen ez zituztelako) edo zentzuz gure ustez akasturik zeudenak. Holakoetan guk beste ordain bat eskaini dugu, asmoz behintzat, zuzenagoa.

Asmatze lan honetan aurrizki batzu (**des-**, **aurre-**, **gain-**, **super-**, **kontra-**...) eta atzizki asko (**-gailu**, **-pen**, **-kide**, **-tzapen**, **-zta(tu)**, **-dura**, **-kor**, **-mendu**...) oso mesedegarriak gertatu izan zaizkigu, eta berauei bultz egitean aspaldi honetako literaturan hartuz doazen lekua agerterazi besterik ez dugu egin.

b) Nazioarteko hitzei dagokienez, gu ere nazio bat garen aldetik, bestek egiten dutena egiteko eskubide berbera dugula dirudi. Hortaz definizioz, nazioarteko hitzak euskarazkoak ere ba dira.

Hitz hauen forma, ordea, euskararen premietara aldatu eta moldatu behar izan da batzutan, usario eta deklinazio arrazoiengatik batez ere. Honetaz ez dagoke, guk uste, oztoporik.

Inork oraindik konplexurik balu, horra doaz, diogunaren lekuko, zenbait hitz, Europako eta munduko beste hizkuntza batzuren arauera esanak:

“**Eskola**”: esp. **escuela**, fr. **école**, port. **escola**, kat. **escola**, it. **scuola**, ing. **school**, alem. **schule**, err. **xkola**, bret. **skol**, hung. **iskola**, georg. **skola**.

“**Akademia**”: esp. **academia**, fr. **académie**, port. **académia**, kat. **acadèmia**, it. **accademia**, ing. **academy**, alem. **Akademie**, err. **akademija**, bret. **akademiezh**, georg. **akademia**, arab. **akadimiya**.

“**Telefono**”: esp. **teléfono**, fr. **téléphone**, port. **telefone**, kat. **telèfon**, it. **telefono**, ing. **telephone**, alem. **Telephon**, err. **telefon**, georg. **teleponi**, arab. **telefon**, txin. **telifung**.

“**Kristal**”: esp. **cristal**, fr. **cristal**, port. **cristal**, kat. **cristall**, it. **cristallo**, ing. **crystal**, alem. **Kristall**, err. **khrustal**.

“**Banku**”: esp. **banco**, fr. **banque**, port. **banco**, kat. **banc**, it. **banco**, ing. **bank**, alem. **Bank**, err. **bank**, bret. **bank**, georg. **banki**, arab. **bankun**.

“**Martxo**”: esp. **marzo**, fr. **mars**, port. **março**, kat. **març**, it. **marzo**, ing. **march**, alem. **März**, err. **mart**, bret. **meurzh**, georg. **marti**.

“**Brigada**”: esp. **brigada**, fr. **brigade**,

port. **brigada**, kat. **brigada**, it. **brigata**, ing. **brigade**, alem. **Brigade**, err. **brigada**, bret. **brigadenn**, georg. **brigada**.

“**Kafé**”: esp. **café**, fr. **café**, port. **café**, kat. **café**, it. **caffè**, ing. **coffee**, alem. **Kaffee**, err. **kofje**, bret. **kafe**, hung. **kávè**, georg. **qava**, txin. **chafei**.

“**Moderno**”: esp. **moderno**, fr. **moderne**, port. **moderno**, kat. **modern**, it. **moderno**, ing., alem., err. **modern**.

Agian norbaitek alferreko lana eritziko dioke hiztegi honetan hainbat hitz internazional azaltzeari. “Berdinak edo antzekoak baldin badira, zertarako orduan puztu hiztegia holakoez?.. Horik edozeinek asma ditzake buruko min handirik gabe”. Honen moduko kritikarik ondo kontutan eduki dugu, eta hala ere hitzok hiztegian sartu ditugu.

Alde batetik, hitz horien euskal forma mugatzeko, konstatatzeko. Izan ere, askok ez dakikete **amnistia**, **biologo**, **robot** edo **poster** euskal hitzak direnik “holaxe” jarririk ikusi arte.

Bestetik, hiztegiak beren fonetika eta idazkera finkatzera lagun diezaieke: **sozialismo**, **zifra**, **interferentzia**, **kontzeptu**, **perizona**, **intsektu**, **trajektoria**, **testu**, **artikulu**, **proiektu**, **keramika**, **estatistika**-ren lekuan, maiz **zozialismo**, **xifre**, **interferentzia**, **konzepto**, **persona**, **insektu**, **traiektoria**, **testo**, **artikulo**, **proiektu**, **ceramika**, **estadistika** eta antzekorik irakur baitaiteke hor zehar.

6. Hitz internazionalen idazkeraz

Duela bi mila urte hasita, euskarak latinetik, eta geroago inguruko erromantzeetatik, hainbat hitz jasoak ditu. Hitz hauen orthographia, itxura bera bezalaxe, euskal hitz arruntan parekoa da (**berba**, **balea**, **zeru**, **bake**, **bekatu**, **birjina**...), honek, azken finean, euskarak latinetik hitzak bereganatzeko duen tradizio zaharra erakusten digu, ez baikara alferrik euskaldunok, gogoz zein gogoz kontra, —eta D. Claudio Sánchez Albornoz-en barkamenaz — latindar kultur barrutian bizi izan. Arrazoi horrexegatik, latinetik edo latinetik hizkuntzetatik datozen hitzak euskal berben fonetika eta orthographia arruntaren arauera moldatu ditugu: **erlatibitate**, **funtzio**, **adjektibo**, **bektore**, **bibratu**, **akusatibo**, **sektore**... honelatan, **v** letra ez dugu usatu, zenbait izen propiotatik sorturiko hitz deribatu batzutan izan ezik (**kalvinismo**, **xovinismo**...). Hala ere, **e**, **i** aurreko **g** letrari dagokionez, hitz zanarretan hura gabe **j** ezarri dugu (**birjina**, **erlijio**...) baina berriki hartuetan, aldiz, **g** hobetsi dugu eskuharki (**prestigio**, **kolegio**, **ingeniari**).

Greko, ingeles, aleman, errusiera eta beste hizkuntza arrotz urrunagoetatik datozenak, ordea, bestela hartu ditugu. Euskaldunok ez dugu historiaz eta kultur tradizioz haiekiko tratu handirik ukan. Hori dela eta, horietarako hitz internazionalak euskaraz ipintzean, orthographi transkripzio huts bat egin dugu, ingeles, aleman eta

frantsesaren bidea hautatuz.

Zenbaitzuk espainolaren bidea hobetsi dute, euskaldunok geure hizkuntzaren usario eta tradizioa espainol eskoletan finkatu bagenu bezala. Espainiera, bestalde, mundu zabalari begira, ez da kultur hizkuntza internazional garrantziko bat, ingeles, aleman eta frantsesaren peko murrantz bat eramanez. Euskaldunok, hortaz, espainolaren peko kultur menpekotasuna onhartzean, morroi baten morroi bilakatzen gara. Zuzenago lirudike, gure ustez, benetako kultura eta teknikak sorterazi dituzten herrien menpean zuzenik ezartzeak, bitarteko hutsalei kasu egiteke.

Nolabaik, kanpoko hizkuntzetatik hitzak onestea beste herriek kultur arloan ordaindu behar diegun royaletia da. Ez dago orduan, aitortezinezko abertzalekeriaz ez bada, batere arrazoirik kanpoko produktuekin batera heltzen zaizkigun hitzak desitxuratzeko. Kanpoko morrontza onhartu nahi ez badugu, egokiena zera da, haiengandiko asmakari eta emaitzak oro baztertzea; berauk eskuratzeko baditugu, ordea, izenak -fabrikapen markak, halegia - gaitzesteak, ez du zentzurik. (4)

Ba da, hor, diote, beste konturik: Herriari bidea erraztea.

Hau, ongi aztertuz gero, gezur hutsa da. Lehengo eta behin, Frantziapeko euskaldunek eskuharki duten idazkera, frantsesarena halegia, baterago dator guk proposatzen dugun systemaz, batzuk maiteago duten erraztu eta espainoldu horrekin baino. Ez da hor, beraz, erraztasun konturik. Bestalde, guk orthographia etymologikoaren arauera idazteko dioguzen hitzak, maila gora batekoak izanez, modu batera zein bestera idatz, berdin dirateke gaitz edo erraz herri xehe ezikasientzat. **Anthropologia, filosofia, psikologia** eta honelakoak goi mailako hitzak dira, ulertzeko, ikasketara nibel bat eskatzen dutenak. Herriak aditzea nahi badugu beraz, ez derragun falsukeriarik, altxa diezaio-gun herriari bere kultur maila eta esplik diezazkiogun, baina zientzia eta kultura bera apaldu gabe.

Bestelako bideak, azkenean, espainolaren modura idaztea esan nahi du. Espainolez etymologi idazkera gordetzen duten hitzekin, hain zuzen, ez baita berdin jokatzen, eta **psykhia** onhartzan ez duen idazle berberak ez du bate-re lotsarik gero **apartheid, dossier, ballet, nylon, whisky** edo **palimpsesto** erabiltzeko.

Dena den, zenbait mailatan -haurrentzako lehen textuetan kasu- ba liteke, irakaskuntzan autonomia handiago bat lortu arte behintzat, orthographia xinpleago bat, besterako bide gisa, oraino komenigarri izatea. Hortaz, espainiera-euskara partean, idazkera bikoitzaz agertzen ditugu gisa horretako berbak. Salbuespen bakarra **y** grekoaz egin dugu, izena duen bezala, grekotik datozen hitzertarako ezin utzia dela uste baitugu.

7. Modako hitz pasakor batzu

Irakurleak agian estrainio eritziko dio hitzegi honetan **twist, yo-yo, minigona** eta antzeko hitz pasakorrak aurkitzeari. Honekin hauxe adierazi nahi dugu soil-soilik, euskara hizkuntza ireki bat dela, eta holako hitzek ere, zati baterako bada ere, beren sarrera ba duketela gure hizkuntzan, hemendik urte gutitara, deserabilera, irteera ukanen duketen modu berberaz.

8. Aditzak adierazteko moduz

Hitzegi hau da aditzen sustrai infinitiboa eta partizipioa bereiz azaltzen dituen lehenbizikoa. Hau, noski, praktikoa dateke subjuntibo eta potentzialean nola zatikatu behar den jakiteko: **ekarriko dut**, baina **ekar dezaket; mintzatzen da**, baina **mintza zedin; ezagutu duk**, baina **ezagut dezakek**. Bigarren kasuotarako, beraz, aski da, ikusten denez, parenthesis arteko zatia kentzea: **handi(tu), sai(du), ot(tu), garai(tu), oroit(tu), ekarri(tu), ilun(tu), ikusi(tu)**, etab.

9. Moldatzaileen azken oharrak

Hitzegi hau egitean moldatzaileok ukan dugun helburua, lehengo eta behin, hauxe izan da, gure hizkuntzaren aukera egin duten guztiei kultur tresna bat eskaintzea. Guretzat, euskara eskal bizimodu osoaren adierazpena izateko bada, era guztietako hitzak behar ditu: zaharrak eta berriak, baserri eta marinel kutsukoak, kalekoak eta unibertsitatekoak; elizakoak zein lizunkeriazkoak, pertsona dotore eta ijitoenak. (5)

Orain arteko tabu izandako hitz asko (**alu, larru jo, puta, atzelari, popatik hartu...**) inolako lotsarik gabe sartu ditugu hitzegan, horrela geure hizkuntza sail horietan gaiago, aberatsago beraz, egiten dugulako segurantzaz. Ba liteke, ikastolaz den bezainbatean, batzuzentzat eskandalagarri gertatzea, baina ez gaitu horrek baltete kezkatzen, ponteko igelak ez izanki. Gaur kaleko edozein umegorrik ba dakizki erdaraz guk hemen jarritako hitzik zantarrak ere, eta erdal hitzegietan 8-9 urterekin **puta** zer den begiratu ez duen umerik ez dago. Hypokrisiarik ez, beraz.

Gure kezka besterik da, ikastolen premiak aurrera joan ahala hitzegi hau hemendik urte batzutarra atzeratu xamar gelditzea, baina hori munduko hitzegi argitaratu guztien patua da. Une honetan ikastol textugintzak hartu duen abiadaz, urtero hainbat hitz berri sortzen dira, hitzegi honek, noski, faltako dituenak. Hori konpontzeko, komenigarri izanen litzateke textugileek, batera, liburu horien hitz zerrenda berriak argitaratzea, bai irakasle-haurren argitasunerako eta bai hitzegiaren hurrengo edizioetan errazago sartzeko ere.

Hitzegi honetan, bestalde, zenbait definizio eta esenplu xeblebre aurkituko ditu irakurleak. Holakoak honelako lan batetan egon daitezkeen gogo, ideia eta humore ezberdinen ondorioak dirateke. Batzuri, agian, ez zaie gustatuko hitzegi bat **cum mica salis** irakurtzea, are gutiago gatz garauk larritxoak direnean. Zer eginen die-

gu badal Mytho zaharrak apurtzerik ez genuke, inork aurretik eraiki ez balizkigu. Aurreranzko bidea egiteko, bestalde, zaharra urratu behar izaten da, zabalteko besterik ez bada ere, eta gure atzetik datozenek gaurko gureaz beste horrenbeste eginen dutela pentsatzaak poztu egiten gaitu, denok bide beretik goazelako seinalea izaten baita. Arruta ezberdinak, ordea, bide zaharrak ahanztearen sasiez estaltzen ditu.

Agian hiztegi hau zenbait arlotan desekilibratu xamarra gerta daiteke. Euskaraz ez ditugu euskaldunok kultur eta zientzi sail guztiak berdin jorratu, eta batzutan nolabaiteko tradizio eta aberastasuna dagoen artean, beste batzutan antzutasuna da nagusi. Moldatzaileon artean ere zaletasun, gustu eta joera bereziak izan dira eta nor bere gustuko arloetako hitzez arduratu da. Hau, ordea, jaioko diren berriekin - hiztegiekin eta pertsonekin - konponduko delakoan gaude.

Hiztegiak gainera, zenbait gehigarri ere ipini ditugu. Grammatikazkoa llaburra da, deklinazio, syntaxis eta aditz synthetikoen skhemekin. Ondoren geographi izenen zerrenda bat dator, Xabier Mendigurenek eta Imanol Berriatuak Euskaltzaindiari proposatua hain zuzen. Honekin batera, izen historiko eta mythologikoen zerrenda bat ere jarria dugu. Guztiok izen propioak direnez gero eta Euskal Herriari, oro har, ez dagozkionez, Azkue, Mitxelena eta beste batzuren eritzien arauera, jatorrizko hizkuntzaren moduz ezarri ditugu soil soilki. Horrelaxe egiten zuten, bestalde, Leizarragak, Oihenartek eta beste euskal idazle zahar batzuk.

Pertsona izenen zerrenda, noski, ez da osoa. J.M. Satrustegik inprimategian du berea eta huraxe dateke hornituagoa. Gurea erakusgai bat besterik ez da.

Euskaldunok asko zor diogu geure Akademiari eta hiztegi hau, oinharritz, haren arauetara moldatua izan da. Hala ere, erakunde honek bere **begi on** horien atzean uzten duen askatasunaz baliatu izan gara zenbait puntutan, horrela aldaketa eta bereizkuntza argigarri eta zehatzagoak egiteko.

Ez da sekretu bat, gainera, munduko hizkuntz akademia guztiak, nolabaiteko senatu bat osatzen duten aldetik, kontserbadore xamarrek izaten direla, eta beraien jarrera maiz "gelditasunezko zuhurtzia" bat izaten dela.

Guk geuk, errespetu osoaz, aurreraxeago joan nahi ukan dugu.

Zer esanik ez, hiztegi honetaz baliatzeko, beharrezkoa da euskara, maila batetaraino jakitea. Ho-

ri gabe, hiztegiak dakartzan berbak elkartzuz **o-toltz subordinatua, makila bota, bekoki kulturalea** edo **neokarnaeak oñaskoa iturrian dakar mahala** moduko perla preziaguitzak sort daitezke, orain arte bezala. Exenpluak ba daude, bai, baina ez da posible beti, halakoekin euskal eza-guerarik eza gainditzea.

Etxapare zahar eta Lizardi gaztearekin, guk ere kanporatu egin nahi dugu euskara, plazazatu, horrela lparagaririk kantatu zuenez, mundu zabalean bere fruitua eman dezan.

AD MAIOREM VASCONIAE GLORIAM

Bilbon, 1976.eko Maiatzaren 17an

- (1) Honetan zenbait aldizkarik (**Anaitasuna**k, **Zeruko Argiak**, **Zabalak**, **Hitzek**...) eta ikasteko methodok **Euskalduntzen**, **Euskara hira laguna** ...), irakaskuntz textuek (**Saiokak**...) laguntasun ederra eskaini digute gaurko jokabidearen eta aukeraren haria nondik nora doan erakustean.
- (2) Gauza bera egin dugu ekialdeko euskaltietan agertzen diren hitz batzuekin, **ih**, **nh** eta **rh** edukiz gero: **seip/saiho una/unhe**, **er/erhi**. Kasu hauetatik aparte, kontsonante ondoko **hak** hurrengo kasuetan kontserbatu ditugu: a) beste euskaltietan **h** horren tokian beste kontsonante bat agertzen denean: **inhuri** (eta ez **induri**, **tinguri**) **inhar** (ez **tingar**); b) hitz elkartu hutsen kasuan: **oinhartu**, **oinharri**, **oinhartu** cf. esp. **dehechor**, **malhechor**, **inhábil**; **bonheur**, **malheur**...
- (3) **Il duce**-ren garaiko Italia faxistan antzeko gauzak gertatu ziren. Han latinetik zetozen hitz garbiak hartu beharra zegoen, eta ez besterik. **Notal** hitza, kasu, gogorik atakatua izan zen, frantsesetik zetorren barbarismo zikina zelako. Haren ordez, **albergo** italiar hitz jatorraren aldeko kanpainia nazional bat mantutu zen. Kontua zera da, **albergo** hori germanismo bat (**Theriberga** delakotik etorria) dela, frantsesetik **hotel** hitza, latinezko **hospitale**-tik sortua den artean. Puristen argitasuna, dirudienez, toki guztietan izaten da antzekoa.
- (4) Beste horrenbeste gertatzen da, noski, euskal kultur giroan sorturiko gauzeikin, hala nola **abarca**, **chacoli**, **ohistulari**, **pelotari**, **gudari**, **ikastola**... espainolera iraganak.
- (5) Ijitoen hizketako hitzek, bestalde, gure hizkuntzak falta duen **argot** bat osa dezakete nolabaik. Ez litzateke gaizki, literaturan hasita, giro batzutako adierazpen gisa, erdarazko **gachó**, **napa**, **parné**, **payo** eta holakoen ordainez, euskal ijitoen mintzaira hori birbiztea.